

LOR DEZAGUN BIZITZA DUINA IZATEA ZORTE KONTUA EZ IZATEA

PERTSONAK DAUDEN ARTEAN, ITXAROPENA IZANGO DA

Ez dago eguberrik Abendualdirik gabe, berria sortu aurreko prestatze-aldirik gabe. Kristauok, Eguberri-egunean, Jainkoaren Semearen jaiotza ospatzen dugu, Jainkoa haragi egina, gizatasun, txikitasun, kreatura, maitasun bihurtua. Jainkoa itxaropen egina.

Eguberri-egunean gure identitatearen zerbait berreskuratzen dugu. Berriro jaiotzen gara Jesusekin batera, gizaki bakoitzarengan haragitutako Jainko Maitasunarekin batera. Guregan berriro jaiotzen dira ontasuna, gizatasuna, barkatzeko eta maitatzeko gaitasuna, eta, guztiarekin ere, Jainkoaren seme eta alaba izatearen duintasuna. Jesus jaio, eta berriro ekartzen digu gu guztion duintasuna, gizaki bakoitzarena, Historiaren edozein unetan.

Giza duintasuna, Jainkoaren aurrean guztiok berdinak egiten gaituena, gizaki gisa hautsi ere egiten zaigu besteei beren duintasuna aitortzeari uzten diogunean, besteen eskubideak eta askatasunak oztopatzen ditugunean, abusatzen edo ukatzen dugunean, beste aldera begiratzen dugunean, haien eskubidea, askatasuna eta duintasuna geroko utzita.

Bizitza duina izatea, giza eskubideak eskuratzea, bakean eta segurtasunez bizitzea, etxe bat izatea, enplegu bat izatea, hezkuntza on bat eta osasuna zaintzeko modua lortzea ez lirateke zorte kontua izan behar. Duintasuna eta eskubideak izatea edo ez izatea justifikatzeko, ez genituzke aitzakia gisa zoria edo probabilitatea bezalako arrazoiak erabili behar.

Horregatik, Caritasen, hauxe ospatu nahi dugu eguberrietan: duintasunez bizitzea izan dadila helburu bat, hautu bat, eta ez zorte kontua. Abendualdian abagune ederra dugu egun horiek kontzientzia hartzeko erabiltzeko, geure burua prestatzeko, eta eguberrietako jai-egun horiek koherenteak izateko duintasunarekin, gurea eta besteena, parrokia guztietatik laguntzen eta babesten ditugun pertsona guztiena, egunero abian jartzen ditugun proiektu, zentro, ekimenen bidez babesten dugun jende guztiarena, milaka pertsonak bizitza justuagoa eta duinagoa lortu dezaten, horrek ez lukeelako inola ere zorte kontua izan behar.

PERTSONOK GAUDEN BITARTEAN, BADAGO ITXAROPENA

Izan ere, gutako bakoitzarengan duintasunerako aukera dago, ekarpenen bat egitekoa, keinu bat, hazi bat, senidetasuketako eta elkartasunetako ekimendua bat, gure giza duintasunetik ernamuinduta besteei itxaropena kutsatuko diena.

Gonbidatu nahi zaitugu eguberriak zentzuz bizitzera, egun horietan kontzientzia hartzen denbora ematera, zure etxea prestatu dezazun, eta ez soilik apaindu. Pentsatu nolakoa nahi duzun izatea zure etxea, zure izatea bera, zer nahi duzun besteei aurkitzea, eta erabaki zer eskainiko diezun.





ITXAROPENERAKO BIDEA

Amaitzear da Frantzisko Aita Santuak deitutako Jubileu Urtea, baina gu erromes bezala egiten ari garen bidea ez, ordea. Guk itxaropen bila jarraitzen dugu, itxaropen horrek emango baitio zentzua gure bizitzari eta gure patuari, itxaropen horrek lagunduko digu arrazoiak aurkitzen aurre egiteko minari, pobreziaren ziurgabetasunari, gerren indarkeriari edo gaixotasunari. Itxaropen bila ari gara, itxaropenak gure karitatea eta errukia zabaldu ditzan.



“Etorkizuna aurretik jakin ezinak sentimendu kontrajarriak sorrarazten ditu maiz: konfiantzatik beldurrera, lasaitasunetik etsipenera, ziurtasunetik zalantzara. Askotan aurkitzen dugu jendea gogogabetuta, etorkizunari eszeptizismoz eta ezkortasunez begira, zorientasuna ezerk eskaini ezin balio bezala. Jubileua itxaropena berpizteko abagunea izan dadila guztiontzat”¹



Egia da bizi gaituen garai honek dakarkigun agendan egun ilunak sumatzen direla, hodei beltzez beteak, eta ez dira desagertuko. Alde horretatik, IX. Foessa Txostenak egoera etsigarria berresten digu: bakardadea, etxebizitzaren arazoa, enpleguarena eta migrazioak gure gizarte honen Akilesen orpo bihurtu dira, gizarte zatikatu, beldurtu eta indibidualista dugu, eta badirudi noraezean doala, klase politikoak, besteak beste, denbora gehiago ematen baitu ernegazioa eta liskarrak pizten eta aurkariari errua botatzen, guztiona dena eta herritarrentzako zerbitzua kudeatzen baino.

Munduko testuinguruak ere ez digu etorkizun itxaropentsurik oparitzen; aitzitik, arazoei gehiegizko garrantzia ematea eragiten du, eta horrek, ongian sinesterik ez dagoelako ustea handitzea eta gu larritzea.

Horrela, itxaropenerako bidea ez da erraza. Batzuetan harriak eta hormak baino ez ditugu ikusten, eta horien aurrean egin dezakegun bakarra da babestea eta guri ahalik eta gutxien eragin diezagun nahi izatea; edo ameskeriei amain emanda haietan murgildu gaitezke, tarte batez amets eginaraziko digutenak, errealitateetik deskonektarazi, desagertzen diren arte.

Baina errealitatea den bezalakoa da, eta ezin dugu saihestu.

Hiru egoera zehatz bereziki zailak gertatzen zaizkigu eta Caritasen laguntza ematen diegun pertsona zaurgarrienei modu eskandalagarrian eragiten diete:

→ etxebizitzaren arazoa, enpleguaren prekarietatea eta migratzaileek bizi duten errealitatea.

Hona hemen IX. Foessa Txosteneko hiru leiho, ireki ditzagun eta, haietan zehar begiratuta, geure buruari galderak egin:

1 PAPA FRANCISCO, 2025eko Jubileua deitzeko bulda, “Itxaropenak ez du huts egiten”.

ETXEBIZITZAREN ARAZOA.

Gizarte-larrialdi bihurtu da, eta gure herrialdeko 4 etxetik bati eragiten dio. Kostuak izugarri igo dira, eta maila jada gehiegizkoa da milaka pertsonarentzat, ezin diote aurre egin. Horren ondorioz, bizitegiarekin lotutako prekarietate- eta ezegonkortasun-egoerak sortzen dira, etxebizitza partekatuetan bizi beharra, pilatuta, berralokatuta eta/edo legezko kontraturik gabe. Horrelako egoerak guraso bakarreko familiak, gazteak eta immigranteak ari dira kolpatzen batez ere.

PREKARIETATEA ENPLEGUAN.

Enplegua jada ez da babes fidagarri bat bazterketaren aurrean: lana izateak ez du bermatzen diru-sarrera nahikoak izatea, ez egonkortasuna izatea, ez eta oinarrizko eskubideetarako sarbidea izatea ere. Prekarietatea —aldi baterako kontratuak eta kontratu partzialak, soldata apalak eta ordutegi irregularrak— bihurtu da arau Espainiako lan-merkatuan, eta 11 milioi pertsona inguru dauzka harrapatuta era bateko edo besteko lan-segurtasunik ezak. Agertoki horrek bereziki gogor jotzen ditu gazteak, eta, ondorioetako bat da, lehen enpleguak ematen zuen estatusa galtzearekin batera, gazte askorentzat jada ez dela lehentasun bat eta etorkizuneko helburu aspirazional izatetik betebeharrak instrumental izatera igaro dela: lortu behar da, baina ilusiorik gabe.

MIGRATZAILEEK HERRI ETA HIRIETAN BIZI DUTEN ERREALITATEA.

Gaur egun, migratzaileak gure egungo gizarteari eusten dioten oinarrizko zutabeetako bat dira, demografiaren aldetik ematen duten bultzadagatik, garapen ekonomikoari egiten dioten ekarpenagatik eta gure gizartearentzat pizgarri den kultura-aniztasunagatik. Datozen urteetan, 3 gaztetik

1ek familia-migrazioko iragana izango du, gaurko gizartea eta batez ere etorkizuneko imajinaezina da migratzailerik gabe. Bi oztopo nagusik eragozten diete gure gizartean inklusio erabatekoa lortzea: lehenik eta behin, herritartasun-eskubideak izateko zailtasuna eta baimenak kudeatzeko eta berritzeko zailtasunak, horren ondorioz egoera administratibo irregularrean bizi behar izaten baitute. Bigarren oztopoak politika publikoarekin du zerikusia, kontrolera eta lan-merkatuan integratzera bideratuta baitago, baina ez baitu estrategiarik garatzen herrikide gisa integratuak izatera begira aurrerapenak lortzeko.



Baldintzatzaile horietako bat edo batzuk bizi dituztela- eta bizitza duina lortu ezin duten pertsona zehatzen aurpegiak eta izenak datozkigu gogora seguruenik. Egunero heltzen da elizbarrutietako Caritasetara eta parroketara prekarietateak jota bizi den jendea. Bestelako bizitza bat nahi dute, premia-premiazkoa zaie bizitza duin eta arnasberritua bihurtzea.

ZER GEHIAGO EGIN DEZAKEGU?

GAINEZKA EGITEN DIGUN ERREALITATE HONI NOLA HELDU DIEZAIKEGU ITXAROPENEZ?

NOLA LORTU DAITEKE ITXAROPENA IZATEA? ETA BIZITZA DUINA IZATE HORI ERREALITATE IZATEA?

NOLA AURKITU, SENTITU EDO INTUITU DEZAKEGU ITXAROPENA HAINBESTE MIN, EZINTASUN ETA HAUSKORTASUNEN AURREAN?





ITXAROPENA DUINTASUNEAN SORTZEN DA

Erantzunak nahi ditugu, baina aurkitzeko, gure pausoaren erritmoa aldatu behar dugu, gaur egungo gure mundu honetako zarataren erdian entzuten eta begiratzen ikasi.

Abendualdiak horretarako abagunea oparitzen digu; denbora, gure barrura begiratzeko, kanpoko zarata eta barrukoa isilarazteko, talaiatik begira jarri eta perspektiba aldatzen lagunduko diguten zerumugak begiztatu ahal izateko. Denbora behar dugu gure oinak orainean sustraituta sentitzeko, gure arreta ondo fokuratu eta ikusteko zer ari den gertatzen orain, oraintxe bertan.

Egun hauetan, haurdun dagoen emakume bat ibilian doa erditzeko premiak bultzatuta, baina badaki denak bere ordua eta unea duela. Barruan daraman Haurrak badu izena, baina esan nahiko duen guztia oraindik ez daki emakumeak. Badaki mundua salbatuko duela, horretara datorrela: gizadia salbatzera, Historiaren une guztietan mehatxupear dagoen giza duintasuna itzaletatik erreskatatzera. Ez daki, ez du ulertzen, baina itxarotea eta fidatzea erabakitzen du. Bera bitarteko bat besterik ez da, Jainkoaren ama izango da, eta bere gorputza eskaintzen du, bere afektuak, bere bizi-proiektua. Oinak eta eskuak eskaintzen ditu ia konturatu gabe barruan haziz joango den itxaropena ibiltzeko.



Mariaren itxaropenak zerikusia du esna bizitzeko gaitasunarekin, gogorra izanagatik ere errealtatetik ihes ez egitearekin. Zerikusia du izateko eta bizitzeko modu batekin, ez konformatzearekin eta erabat garaitua izaten ez uztearekin; zerikusia du borroka egitearekin aurrera jarraitu ahal izateko, aurrera irteteko, segitzeko, nahiz eta estropezu egin, nahiz eta amildegi ilunetan arrastaka ibili. Mariaren itxaropena da goizero jaiki eta sakonki esker oneko sentitzea guztiagatik, ezer segurutzat jo gabe. Da fidatuz bizitzea, epairik eta gaitzespenik gabe begiratzea, eta aukera aurkitzea berriro hasteko, alternatiba bat topatzeko, ustekabekoa uste izateko.

“Fededunaren ikuspegitik, erronka are erradikalagoa da. Bizitzaren Jainkoak ez du isiltasuna onartzen. Fedea ezin da barne-kontsolamendura murriztu errugabeen odola isurtzen den bitartean. Ebanjelioak aurrez aurre jartzen gaitu: bakea ez da inozokeria, justiziaren fruitu da, eta justiziak salaketa eta konpromisoa eskatzen ditu.

Isiltzea konplize bihurtzea da. Hitz egitea eta jardutea arrakalak sortzea da, itxaropenari sartzeko bidea irekitzeko zartadurak egitea. Horregatik, irmo errepikatzen dugu: ez dugu basakeriara ohitu nahi, bihotza senidetasunean hezi nahi dugu. Ez dugu indarkeriaren logika onartu nahi, bizitzaren logikarekin konprometitu nahi dugu.

Armak isildu eta herriak kantuan arituko diren eguna iritsiko da, baina ez inertziatz.

Iritsiko da baldin eta gaur, hemen, gai bagara sumintzeko, ekiteko eta beste historia bat posible dela sinesteko”².

2 I. García Blanco, , Anaia Marista, Ecclesia, 2025/09/12 (guk euskaratua).

Itxaropenaren espiritua liburuan B. Han-ek dio hain zuzen ere espiritu horrek adoretzen eta bultzatzen dituela gure egintzak. Itxaropenak aurreikusi eta iragarri egiten du. Arrazoimenari eta adimenari ezinezkoak zaizkien ikuskera bat eta ekiteko gaitasun bat ematen dizkigu. Arreta biziagotzen digu, zentzumenak zorrozten dizkigu, eta hala hauteman dezakegu oraindik existitzen ez dena, oraindik jaio ez dena, etorkizunaren zerumugan urratzen hasi berria baino ez dena.

Abendualdi honetan adi eta erne egongo gatzazkio haur horren itxaropenaren etorrerari, zeina gugana datorren gogorazterea pertsona bakoitza garrantzitsua eta sakratua dela eta bizitza duina izateko eskubide osoa duela, eta denbora horretan aurrera egiteko, lau gako hauetan sakontzea proposatzen dizugu, itxaronaldi hori orientatzeko.



AHALEGINEAN EGIN ETA EGIN IBILTZEKO ORDUA DA



“Orduan, zein da Jesusek aditzera emandako erreinuaren gaurkotasuna? Aukera ematen digula gaitzaren erdian ere humanizazio- eta askapen-esperientzia zehatzak aurkitzen jarraitzeko eta esperientzia horiek bestelako etorkizun bateranzko bide posible bat seinalatzen duten mugarri gisa ulertzeko. Orain honetako larritasun eta zalantza guztien erdian, Espirituak bestelako historia batzuk bultzatzen eta posible egiten jarraitzen du: gizadi honentzat bizitzaz eta senidetasunez betetako etorkizun ireki bat eraikitzen tematuta dauden historiak. Etorkizunaren krisi betean, Espiritua dei egiten ari da kristautasunaren bizi-ibilbidea gizon-emakumeentzat Jainkoaren salbamenaren giza kontakizun bihurtu dadin eta, hala, “datorren Jainkoari” bidea prestatzen ari den erlijio gisa bermatu dadin”³.

Ahaleginean ekin eta ekin ibiltzeak zerikusia du tinko eta leial eustearekin, aurrera egiten tematzarekin, eta, kontraesanak, zailtasunak edo adore falta gorabehera, behin eta berriz ekitearekin. Testuaren argitan:

- Zer humanizazio- eta askapen-esperientzia zehatzek ematen dizute zentzua gaur itxaropenaren bidean jarraitzeko?
- Pentsatu zuk bizi izandako zer egoeratan edo beste pertsona batzuen zer historio zehatzetan igartzen duzun Espirituaren presentzia eta bultzada, eta aipatu horietako batzuk.
- Zertan eutsi behar duzu leial eta irmo? Zer zaindu eta indartu behar duzu zukan zuk fedea, senidetasuna eta konpromisoa bizitzeko duzun moduari dagokionez?

3 F.Javier Vitoria, Dar razón de la esperanza en tiempos de incertidumbre, Cristianisme i Justícia, 239. koaderno, 2024ko azaroa (guk euskaratua).



FIDATZEKO ORDUA DA

“Anai-arreba maiteok, gu elkarrekin egoteko sortu du Jainkoak mundua. Sinodalitate da kontzientzia horren eliza-izena. Bide horrek gutako bakoitzari eskatzen dio norberaren zorra eta norberaren altxorra aitortzeko, osotasun baten parte sentituta; osotasun horretatik kanpo dena zimeltzen da, karismarik originalena ere bai. Begira: kreazio guztia elkarrekin existitzearen modalitatean bakarrik existitzen da, elkarrekin existitze arriskutsua batzuetan, baina hala ere elkarrekin beti (cf. Laudato si' gutun entziklikoa 16; 117). Eta guk “historia” deitzen diogun horrek elkartzeko modalitatean bakarrik hartzen du forma, elkarbizitzaren modalitatean, sarritan desadostasun artean, baina hala ere elkarbizitza. Kontrakoa hilgarria da, eta, zoritxarrez, gure begien aurrean dugu egunero.

Jesusen Espirituak mundua aldatzen du, bihotzak aldatzen ditu eta. Hain zuzen, bizitzaren kontenplaziozko alderdia inspiratzen du, zeinak urrundu egiten baitu autoafirmazioa, esamesa, eztabaidarako joera, kontzientzien eta baliabideen nagusitasuna. Jauna Espiritua da, eta Jaunaren Espiritua dagoen lekuan askatasuna dago (cf. 2 Ko 3, 17). Benetako espiritualtasunak, beraz, giza garapen integralera konprometitzen gaitu, gure artean Jesusen hitza eguneratuz. Hori gertatzen den lekuan poza dago. Poza eta itxaropena”⁴.

Frantzisko aita santuak esan zuen bezala, inor ez da bakarrik salbatzen. Itxaropenari eta duintasunari anai-arreben komunitatean eusten zaie. Osotasun baten parte gara, eta gure bokazioetan lehena elkarrekin izatea da. Sinodalitatearen bidea ibiliko badugu, ezinbestekoa da elkarrenganako konfiantza izatea, elkarri lekua uztea denok bete-betean izateko eta garatzeko.

- Zer esan nahi du gaur zuretzat besteez fidatzeak (familia, lana, unibertsitatea, boluntariotza)? Zer suposatzen dizu, nola inplikatzeko zaitu? Saiatu zehazten, zure benetako esperientzian oinarrituta.
- la guztiak susmo txarra hartzera bultzatzen gaitu, geure burua babestera, bestearen eta gure inguruaren beldur izatera: zerk eragozten dizu besteez fidatzea, eta zerk laguntzen edo adoretzen zaitu horretara?
- Besteekin senidetasunezko eta gertuko harremanak eraikitzeko, fidatu egin behar gara, eta hori arriskutsua da, min eman diezagukete. Nola bizi duzu barkamena? Zerk eragozten dizu adiskidetzea eta zerk adoretzen edo laguntzen zaitu?

SINESTEKO ORDUA DA

“Bera da, Sortzez Garbia, galdutako edo ahaztutako balioak berreskuratzeaz ari zaiguna. Berak gonbidatzen gaitu sinestera, isilik egotera, gu sendatu eta salbatzera datorkigun Jainkoaren Hitza hausnartuz. Mariari begira ikus dezake gizaki orok bere burua, bera da Jesusen Ama, bere amatasun unibertsala onartzen duena gu seme eta alaba egiteko eta gure bizitzan jarri nahi den itzal orotatik gu askatzeko. Kantu baten bidez Bizitzan duen itxaropena aldarrikatuko du berak.

Guk dugun erronka, Mariarekin, Hitza entzutea, Hitza geure egitea eta Hitza bizitzea da. Hori ez da batere erraza. Ez da erraza zarataren erdian isiltasuna lortzea. Ez da erraza serio hartzea Ebanjelioa, berri ona. Eta ez da erraza azken pausoa ematea: Ebanjelioa gure bizitzetan egiazko bihurtu dadin pertsonalki konprometitzea. Mariak bai, hala egiten du”⁵.

4 LEON XIV.a AITA SANTUA, Mendekosteko homilia, San Petri plaza, 2025/06/07

5 Abendualdiko eta eguberrietako gidoi liturgikoa, A zikloa. Pertsonok gauden bitartean, badago itxaropena.

Garai honek zalantzan jartzen du fedea. Printzipioak eta balioak izatea, horietan sinestea eta haien arabera bizitzea idealista gutxi batzuen bazterreko kontua dela ematen du. Ideien, sinesmenen eta ohituren erlatibizazio etengabea bizi gara, eta ia dena ideologizatu da. Dena bihurtu da zalantzarri. Hala ere, sinesmenak egitateekin batera doazenean, sinesmen horiei eutsi eta koherentzia ematen dieten ekintzekin batera, pisua eta sinesgarritasuna hartzen dute. Mariak bezala historiaren joanean beren sinesmenak bizitzaren eta ongiaren eredu bihurtu dituzten hainbat gizon eta emakume ezagutzen ditugu.

- Pentsatu gaur egun fedea eta Jesusen Ebanjelioarekiko konpromisoa transmititzen dizun pertsona edo pertsona-talde batean. Zer miresten duzu? Bultzatzen zaitu zerbaitetara? Zertara?
- Zer egin dezakezu gaur zure fedea lantzeko? Norekin? Eta zure konpromisoa? Zeure zerbait bezala bizi duzu ala komunitateak bidalita sentitzen zara?
- Itxaropena posible dela uste duzu? Zer da itxaropena zuretzat? Zer arrazoi dituzu gaur itxaropena izateko? Idatzi 5-10 lerrotan eta, gero, partekatu taldean.

MAITATZEKO ORDUA DA



“Eguberri zoriontsuak izateko nire nahia senidetasun-nahi bat da. Nazio eta kultura guztietako pertsonen arteko senidetasuna. Ideia desberdinak izanagatik ere elkar errespetatzeko eta besteari entzuteko gai diren pertsonen arteko senidetasuna. Erlijio desberdinetako pertsonen arteko senidetasuna. Jainkoaren bila ari diren guztiei haren aurpegia erakustera etorri da Jesus”⁶.

Hainbat kondizio gogorretan bizitzea egokitu zaigu gizaki zaurgarrioi, eta, horren aurrean, Eguberri bakoitzak gogora ekartzen digu pertsona bakoitzaren duintasuna aitortu beharra dagoela, guztion artean

mundu mailako senidetasun- eta itxaropen-nahia berriro piztu dezagun.

Oraingo Eguberri honetan itxaropena sortzeak konpromisoa eta ardura hartzea dakar, bai pertsonala, bai komunitarioa. Maitasuna sustraitzeko eta gauzatzeko, gure izate osoak hartu behar du konpromisoa. “Maita ezazu Jauna, zeure Jainkoa, bihotz-bihotzez, gogo osoz eta adimen guztiz. Maitatu lagun hurkoa zeure burua bezala” (Mt 22, 37-39).

Zure inguruan itxaropen- eta duintasun-seinaleak ereingo dituzten keinuak egitera gonbidatu nahi zaitugu, zentzuz betetako eguberriak bizitzeko.

- **Argitu itzalak.** Bihurtu zaitez argi sotil, ibiltzen zaren lekuetan bakea eta harmonia jartzeko, berri onaren testigantza emateko, adiskidetzeari, elkarriketa eta elkar aditzea sustatzeko. Izan zaitez zeu besteei entzuten dien pertsona hori, berotasuna, babesa eta eskuzabaltasuna adierazten dituen pertsona.
- **Babestu desberdinak diren horiek.** Eman beste urrats bat, joan zureengandik, ondo sentiarazten zaituztenengandik, hurbileko zaizkizunengandik harago. Praktikatu abegikortasuna, hurbildu eta mintzatu zu bezalakoak ez diren pertsonekin, bestelako kulturak, bestelako pentsaerak edo gauzak egiteko bestelako erak dituztenekin.
- **Egin bidea berriro elkartzerantz.** Eguberri-egunean, Jainkoa gutako bakoitzarekin berriro elkartzeko jaiotzen da; gu guztiokin, Haren kreatura eder eta zaurgarri garenokin. Ireki zure “etxea”, eta utzi barruraino sar dadin. Landu isiltasuna, Hark aurkitu zaitzan bizitzea egokitu zaizunaren errealitatean, eta jaio berriro.
- **Imajinatu eta eraiki mundu hobe bat.** Jesus gizadi guztiarentzat jaiotzen da, salbuespenik gabe, askatasun erabatekoan. Denontzat jaiotzen da: nahi dugunontzat, eta arbuiatzen dugunontzat ere bai. Gaur, artzainak bezala, pobreak bezala, bazterrean daudenak bezala, horiekin guztiekin, Jesusen aurrean agertzen gara, umil eta apal, nahi sakon batekin: aldatu diezagula bizitza eta eralda diezagula bihotza, itxaropenaren iraultza egiazko bat bizitzeko.

6 FRANTZISKO AITA SANTUA, Mezua eta “Urbi et Orbi” bedeinkazioa, 2018ko Eguberri-eguneko ospakizuna.

OTOITZAREN TXOKOA

ARGITU ITZALAK

Etxebizitza eskuratzeko arazoa guztiz orokortua da eta gizarte-larrialdiko arazo bihurtu da. Gazteak etsiak jotzen ditu, etorkizuneko proiekturik ezin ikusita dabilta; eta pertsona pobreenak eta zaurgarrienak gero eta egoera prekarioagoan bizi dira: ia ezinezkoa da etxebizitza duin bat lortzea.

Enplegu bat lortzeko aukerak, garapen pertsonala duindu eta gazteen kasuan bizi-proiektuak hasteko aukera erraztuko lukeen enplegu bat lortzekoak, ez dira inola ere berdinak baliabide gutxien dituzten pertsonentzat eta egoera ahulenean daudenentzat.

Gure artean bizi diren migratzaileek egunero-egunero zailtasun ekonomiko eta sozial handiei egin behar diete aurre, eta horrek gizartean integratzea eragozten die. Pertsona eta familia horietako asko ezagutzen ditugu, badakizkigu haien izenak eta historiak.

Gure egunerokotasunaren parte diren errealitate horien aurrean, lortu **Abendualdian zurekin izateko kandela bat**. Gonbidatu nahi zaitugu kandela egunero piztera, uneren batean. Zure presentziako unea izango da, dena isiltzeko tarte bat, errealitate horiek eta zu bizitzen ari zaren errealitateak presente egin eta Jainkoaren eskuetan jartzekoa. Berdin du tarte luzea edo laburra den, berdin du zuk ezer ez sentitzen ez baduzu. Egon, izan ahal izan zaitezen, hemen eta orain.



BABESTU ETA EGIN BIDEA BERRIZ ELKARTZERANTZ

Abendualdian eta eguberrietan hitzorduak, ospakizunak eta topaketak ugaritu egiten dira. Bakardadea ere agertzen da zalapartaren eta alaitasunaren erdian. Harreman sozialak, familiakoak eta adiskidetasuna lantzeak ongizatea ematen digu, maitatuak sentiarazten gaitu eta maite ditugunak hobeto zaintzera bultzatzen gaitu. Senidetasunak eta adiskidetasunak bihotza goxatzen digute. Abagune ederra dugu bakarrik daudenen bidera irteteko, laguntzeko eta zaintzeko.

Lagun ikusgai bat izatera gonbidatu nahi zaitugu. Kontua ez da ezer erostea, baizik eta ondo edo gutxi ezagutzen duzun norbaiten bizitzan presente egitea, ikusteko eran eta egunerokoan. Kontua da pertsona hori zure bizitzan presenteago bihurtzea, haren alde otoitz egitea, hari adi egotea eta zaintzea, pertsona horren askatasuna gordeta.



IMAJINATU ETA ERAIKI MUNDU HOBE BAT

“Nire izenean bizpahiru lagun nonbait biltzen badira, han nago ni beraien artean” (Mt 18, 20). Jainko Hirutasuna anai-arreben bitartez gure bizitzan presente egiten da. Bakoitza Jainkoaren maitasunaren isla da, ongiaren eta ontasunaren itxuran. Hona hemen ipuin bat, goza dezazun eta inspira zaitzan, eta, nahi baduzu, besteekin partekatu eta komunitatean otoitz egiteko.

ORKESTRA

Bazen behin musika-tresna talde bat, baso bateko sakonik sakonenean bizi zena. Ez zuten elkarren batere antzik. Tuba handia zen, biribila eta sakona; Biolina, txikia, delikatu eta ahots altukoa; Flauta, luzea, distiratsua eta etereoa; eta Danborra, sendoa, irmoa eta erritmikoa.

Hasieran, bakoitzak bere kabuz jotzen zuen, bere soinua onena zela sinetsita. Tuba kexu zen, Biolina zoliegia zela esaka. Biolinak kopeta zimurtzen zuen Danborraren soinu baxu eta astuna entzuten zuenean. Flauta ez entzuna sentitzen zen Tubaren presentzia sendoa zela-eta. Basoak kakofonia hutsa entzuten zuen, nota solte eta desafinatuen anabasa.

Egun batean, ekaitz izugarria hasi zen basoan. Haizea uluka zebilen, zuhaitzak kraskaka. Animaliak ikaratu eta ezkutatu egin ziren. Musika-tresnak, dardarka, konturatu ziren bakarka egiten zuten zaratak ez ziola inori lasaitzen laguntzen. Orduan, Hontz zahar jakintsu eta pazientzia handiko bat agertu, eta esan zien: “Zuen boterea ez dago elkarren desberdin egiten zaituzten ezaugarrietan, baizik eta elkarrekin sortu dezakezen horretan”.

Hontzak esandako hitzek inspiratuta, musika-tresnek elkarri begiratu, eta ahalegina egitea erabaki zuten. Danborrak erritmo konstante eta lasaigarri bat markatu zuen. Tubak melodia sakon eta babesgarri bat gehitu zuen. Biolinak, bere ahots eztiak, olatuak bezala gora eta behera egiten zuen harmonia bat ehundu zuen. Eta Flautak, bere soinu gardenarekin, euritearen ostean berriro zetozen txorien kantua gehitu zuen.

Pixkanaka, musika-tresnen soinuak fusionatu eta zerbait magiko bihurtu ziren. Elkarrekin, sinfonia eder bat sortu zuten, eta, hain zen lasaigarria, ekaitza baretzen hasi baitzen. Animaliak ezkutalekuetatik irten ziren, harrituta eta pozik.

Egun hartatik aurrera, basoko musika-tresnek ez zuten sekula gehiago nork bere aldetik jo. Ulertu zuten benetako indarra ez ziela ematen zaratatsuena izateak edo eztiak izateak, baizik eta beren arteko desberdintasunak batzeak. Ikasi zuten tuba beharrezkoa zela oinarria emateko, biolina emoziorako, flauta argitasunerako eta danborra bihotzerako. Bakoitzak bere soinu berezia ematen zuen, eta elkarrekin bakarrik sortu zezaketen musika perfektua. Baso osoa musika-tresnen harmoniaz bete zen, une oro oroitzeko: aniztasunak eta batasunak indartsuago eta ederrago egiten du edozein talde.



OTOITZA

Egin bedi argia ilunpean, eta bakea batailan.
Bihur bedi barre negarra, eta sendatze urradura.
Bihur bedi xuxurla garrasi samina,
erne bedi itxaropena gorrotoa dagoen lekuan
eta hormek laguntza ematen uzten ez digutenean.

Zure ahotsak itzul diezagula pauso irmoa
beldurrak axolagabe bihurtu gintuen lekuan.
Aputu daitezela dikeak
eman gabeko maitasuna geldiarazten dutenean.

Egin bedi zure egia gure zaraketan,
egin bedi zure hitza gure kantuan.
Bihur bedi zure erreinua erronka.
Hona hemen zure seme-alabak, leial, esperoan, izango
ahal dugun
arnasbide bat, fede handiagoa, besarkadaren bat.

Egin bedi, Jauna, zure betiko ametsa.
Egin bedi zure Bizitza gure lokatz honetan.

José María Rodríguez Olaizola, "María, en
contemplaciones de papel", Sal Terrae, 2025
(guk euskaratua).

